



LEKEITIO, MUSKIZ, ERDIKO CADAGUA, ELORRIO, URDUÑA ETA LARRABETZUKO AGLOMERAZIOEI DAGOZKIEN SANEAMENDU-SISTEMAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALAK (SSKPI) IDAZTEKO LANETAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3242

Erregulazio bateratua duen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Cristina Gortazar Salazar
4.- Kontratazio-ko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Lekeitio, Muskiz, Erdiko Cadagua, Elorrio, Urduña eta Larrabetzuko aglomerazioei dagozkien Saneamendu Sistemak Kudeatzeko Plan Integralak (SSKPI) idazteko lanetarako laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea.

2.- Bete beharreko premiak: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduen 259 quinquies artikuluan ezarritako legeko betebeharra betetzea. Artikulu horrek eskatzen du araudiak ezarritako epeetan inbentariatuak hiri-aglomerazioetarako Saneamendu Sistemak Kudeatzeko Plan Integralak (SSKPI) egitea eta aurkeztea. Horren bidez, saneamendu-sistemen plangintza eta kudeaketa zuzena bermatuko da eta arauak ez betetzea saihestuko da.

3.-Loteetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez

Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:

1. lotea ERDIKO CADAGUA, ELORRIO, URDUÑA ETA LARRABETZUKO AGLOMERAZIOEN SANEAMENDU-SISTEMAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALAK (SSKPI) IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOA: 269.429,75 €

2. lotea: LEKEITIO ETA MUSKIZKO AGLOMERAZIOEN SANEAMENDU-SISTEMAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALAK (SSKPI) IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOA: 166.040,75 €

Parte hartzeko/adjudikatzeko muga:



B.- KONTRATUAREN XEDEA

- Lizitatzailerak bi lotetarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.
- Bi loteetako (A, B eta C gutun-azalak) bakoitzerako, dokumentazio osoa aurkeztu beharko da.
- Ezin izango zaizkio inongo enpresari bi loteak adjudikatu, ez indibidualki ez aldi baterako enpresa-elkarte baten partaide gisa.
- Bi loteetan lizitatzailerak bera sailkatzen bada lehenengo, sekuentzialki jardungo da: lehendabizi 1. lotea adjudikatuko da, eta ondoren 2. lotea.
- Lizitatzaileraren batek lote bati uko egiten badio edo atzera egiten badu, lote guztiei berariaz uko egiten diela ondorioztatuko da automatikoki.

4.-CPV kodeak:

- ☐ 71000000-8 Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskaritza-zerbitzuak
- ☐ 71242000-6 Proiektuak eta diseinuak egitea, aurrekontuak
- ☐ 71300000-1 Ingeniaritza-zerbitzuak

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

- ☐ BAI
- ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

- ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**LAUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA
LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO
ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO
(435.470,50 €), BEZik GABE.**

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: LAUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN
ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (435.470,50 €),
BEZik GABE.

Loteak:

- ☒ BAI
- ☐ EZ

Loteen kalkulaturako balioa:

1. lotea: Erdiko Cadagua, Elorrio, Urduña eta Larrabetzuko aglomerazioen Saneamendu Sistemak Kudeatzeko Plan Integralak (SSKPI) idazteko laguntza teknikoa ----- 269.429,75 €

2. lotea: Lekeitio eta Muskizko aglomerazioen Saneamendu Sistemak Kudeatzeko Plan Integralak (SSKPI) idazteko laguntza teknikoa----- 166.040,75 €

3.-Prezioa zehazteko sistema:

- ☐ Oroharreko prezioa
- ☒ Aleko prezioak

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

- 1. lotea: 45907.60122 partida ----- 269.429,75 € (BEZik gabe)
- 2. lotea: 45907.60122 partida ----- 166.040,75 € (BEZik gabe)



C.-KONTRATUAREN PREZIOA

ANUALIDADES	2026	2027	TOTAL
LOTE 1	60.000,00	209.429,75	269.429,75
LOTE 2	45.000,00	121.040,75	166.040,75
TOTAL (IVA EXCLUIDO)	105.000,00 €	330.470,50 €	435.470,50 €

5.-Prezioak berrikustea:

- ☐ BAI
☒ EZ

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

- ☐ BAI ☒ EZ

7.-Ordaintzeko modua: Hileko ziurtagiriak.

8.-Ordainketak kontura: Ez da egin behar.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: HAMABOST (15) HILABETE, lanak hasteko akta egiten den egunetik zenbatzen hasita.

1. lotea: HAMABOST (15) HILABETE

2. lotea: HAMABOST (15) HILABETE

2.-Epe partzialak.

- ☒ BAI ☐ EZ

Kontuan hartuta kontratu honen helburua Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzea dela, nahitaez bete beharreko zenbait mugarri zehazten dira, data zehatz batzuen araberrakoak (ez diote eragiten kontratua sinatzeko egunari).

Honako mugarri hauek ezartzen dira lote bakoitzerako eta SSKPI bakoitzerako:

- 1. mugarria:** Entrega partziala: arroak eta ereduak ezaugarritzea.
- 2. mugarria:** Entrega partziala: sistema deskribatzea eta sare-diagnostikoa egitea, eta kutsaduraren helburuak ezartzea.
- 3. mugarria:** Entrega partziala: soluzioak proposatzea, alternatibak aztertzea eta estimazio ekonomikoa egitea.
- 4. mugarria:** SSKPI dokumentuaren 0. bertsioa (V0) entregatzea. Azken eguna 2027ko irailaren 30a izango da 1. loterako, eta otsailaren 28a 2. loterako.
- 5. mugarria:** SSKPI dokumentuaren 1. bertsioa (1B) entregatzea, arro-erakundera bidaltzeko. 2027ko azaroaren 30a 1. loterako eta apirilaren 30a 2. loterako.

Une horretan, lanak geldiaraziko dira, akta bat sinatuta. Behin arroko erakundeak SSKPIa berrikusi eta alegazioen txostena entregatuta, berriro ekingo zaie lanei, eta enpresa adjudikaziodunak hilabeteko epea izango du alegazioei erantzuteko txostena idazteko eta SSKPIak alegazioetara egokitzeke; horrela, behin betiko bertsioa (BBB) egingo da.

- 6. mugarria:** SSKPI dokumentuaren behin betiko bertsioa (VD) entregatzea.

3.-Luzapena

- ☐ BAI ☒ EZ

4.-Berme-epea: Ez da behar.



D.- KONTRATUAREN EPEA

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (1. lotea: 215.543,8 €; 2. lotea: 132.832,6 €).

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika egiaztatzeko, lizitatzailerik zerrenda bat aurkeztuko dute, azken bost (5) urteetan enpresa mailan egindako eta agiri honetan lehiatzen direnekin zerikusia duten lanen erreferentziez osatua (hau da, saneamendu-planak, modelizazio hidraulikoak eta kalkulu hidraulikoak, eta hiriko drainatze-planak).

Zerrenda hori 2021etik 2025era bitartean luzatuko da, biak barne, eta aurreko urteei dagokien informazioa baztertuko da. Aipatutako aldian egindako zerbitzu nagusien erreferentzietatik, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa dagokion lotearen batez besteko urtekoaren % 50 edo handiagoa izatea eskatuko da.

Alderdi hori egiaztatzeko, urte anitzeko kontratuak modu uniformearen gauzatu direla ulertuko da kontratuak irauten duen bitartean, kontrakoa berariaz egiaztatu ezean. Erreferentzia zehatz horietatik lanak ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira. Ziurtagiri horiek bezero kontratatzaileak, dela pertsona publikoa, dela pertsona pribatua, egindako lanak deskribatu behar dituzte.

Bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten enpresen kaudimena egiaztatzeko, lan horiek egiteko esleitu dituzten teknikariek horrelako proiektuetan egiaztatzen duten esperientzia hartuko da kontuan.

ATXIKI BEHARREKO BITARTEKOAK



- Aholkulariaren ordezkaria
- Kontratuaren ardura duen goi-mailako ingeniaria: Bide, ubide eta portuetako ingeniariaren titulazioa/ingeniaritza zibileko masterra, eta gutxienez hamar urteko esperientzia garapen-eta koordinazio-lanetan eta saneamenduaren arloko proiektuak, azterketak eta planak idazten.
- Ingeniari laguntzailea: Goi-mailako edo erdi-mailako teknikaria (Ingeniaritza Teknikoko titulua edo Obra Publikoetako gradua, Ingeniaritza Teknikoa edo Meatze, Industria eta abarretako gradua duena), eta gutxienez bost urteko esperientzia saneamenduaren arloko proiektuak, azterketak eta planak idazten.
- Hidraulikan espezializatutako ingeniaria: Bide, ubide eta portuetako ingeniariaren titulua/ingeniaritza zibileko masterra edo erdi-mailako ingeniari (Obra Publikoetako Ingeniaritza Teknikoa edo gradua; Meatze eta Industria Ingeniaritzako Ingeniaritza Teknikoa edo gradua), eta gutxienez bost urteko esperientzia saneamendu-sareen eta hiri-drainatzeen ezaugarritze eta modelizazioan eta hidraulikako kalkuluetan.
- Ingeniari aholkulari espezialista: Bide, ubide eta portuetako ingeniaria titulazioa/ingeniaritza zibileko masterra, eta gutxienez hogeitun urteko esperientzia saneamenduko, saneamendu-sareen eta hiri-drainatzeen modelizazioko eta hidraulikako kalkuluetak proiektuetan.
- GISen espezialista den ingeniaria: Erdi-mailako titulazioa, eta gutxienez bost urteko esperientzia kudeaketa geografikoko lanetan.
- Delineatzaile bat, gutxienez bost urteko esperientzia duena.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Baldintza tekniko berezien pleguaren 11. apartatuan definitzen dira lizitatzailerik beren eskaintzak aztertzeko aurkeztu behar duten dokumentazio teknikoaren edukia eta irismena.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerik edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintzako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Zerrenda horretan, preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako unitateen **unitate-prezioak** sartu behar dira, bai eta lehiakideak aplikagarri gisa proposatzen dituen unitateen ere. Hori guztia, preskripzio tekniko partikularren agiriko 12. eta 13. apartatuetan ezarritako baldintzen arabera.
- b) Egindako lanen **exekuzio-aurrekontua**, prezio unitarioetan egindako lanen batura oinarri hartuta. Horien neurketa bat dator aurrekontu partzialei dagokien neurketarekin.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailerikaren profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratze alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 51 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 51 puntu lor daitezke.

a. BALORAZIO EKONOMIKOA..... 50 PUNTU

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoei (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + B_M) / 2$	48 puntu
B _M	47 puntu
$0,8 \times B_M$	46 puntu
$0,6 \times B_M$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- B_M: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuaren banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

B. GIZARTE-IRIZPIDEAK PUNTU BAT

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerraraztea baloratuko da, lantaldean sartutako emakumeen ehunekoaren arabera, irizpide honen arabera:

- % 50etik gorako ehunekoa: Puntu bat
- Portzentajea % X bada (% 50 baino txikiagoa): X/50 puntu

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 49 PUNTU

Era honetan azpibanatzen da balorazio teknikoaren puntuazioa:

1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (22 puntu)

1.1.-Kontratuaren azterketa (5 puntu)

1.2.-Lan- eta antolaketa-metodologia (17 puntu)

2.- Kontratura bideratuko diren baliabide teknikoak (25 puntu)

2.1.- Proposatzen den talde teknikoa, antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna (12 puntu).



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- 2.2.- Lantaldearen antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna (10 puntu)
- 2.3.- Hirugarrenei azpikontrataturako lanak (0 puntu)
- 2.4.- Bitartekoak eta azpiegitura teknikoak (3 puntu).

3.- Ingurumen-irizpideak (2 puntu)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresa bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran bizi diren langileen ehuneko handiena, eta, berdinketa egonez gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusioko langileen kopuru handiena nagusituko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 ale gutxiago dituenean.
- Bi lizitatzailerik daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 ale baino gutxiago dituenean.
- Hiru lizitatzailerik daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da % 25 aletik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 aletan baino gehiagotan gaunditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkeztzen badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko erregimenean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerik hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Ezarritako epeak ez betetzean kontratuaren zenbatekoaren % 2ko zigorra ezarriko da atzeratutako 30 egun natural bakoitzeko; gehienez, kontratu osoaren % 20 arte metatu ahal izango da. Mugarri partzialak betetzen ez badira, atzerapena duen atazaren zenbatekoaren % 2ko zigorra ezarriko da atzeratutako hamar egun natural bakoitzeko; gehienez, dagokion ataza osoaren % 20 arte metatu ahal izango da.



M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Lizitatzailleak proposatutako ingurumen- eta gizarte-konpromiso bakoitza ez betetzeagatik, zigortuko da eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako portzentajezko puntu bakoitzeko esleitutako kontratuaren zenbatekoaren % 2.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa
☐ Azpikontratazioaren mugak

Lizitatzailleak laguntza teknikoko lanen zati bat hirugarrenekin hitzartzeko beharra aurreikusten badu, berariaz adierazi beharko du, lankidetzaren norainokoa eta hartutako konpromisoak adierazita.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Lantaldeak ekipamendurako ezinbesteko baliabide tekniko guztiak izango ditu, zehazki, kontratuaren baldintza tekniko berezien plegua betetzeko beharrezkoak diren hardwarea eta softwarea eskuragarri izan beharko dituzte.

Hasiera batean proposatutako taldeko kideren batek baja hartzen badu, kontratistaren ordezkariak beste kide bat proposatuko dio BBUPko kontratuaren arduradunari, baja hartu eta hamabost egun igaro baino lehen, jakinaren gainean egon dadin. Proposatutako kideak nahitaez bete beharko ditu langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak, eta ordezkaren kaudimen bera edo handiagoa izan beharko du.

Nolanahi ere, bai ordezkariak bai taldeko arduradunak prest egon beharko dute, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, lanen aldizkako jarraipena egiteko.

Kontratuari esleitutako langileak ordezkatzuz gero, ordezkapenak hilabetetik gorako gainjarpena izan beharko du. Gainjartzeak ez dira ordainketaren xede.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak jarduteko edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio kontratu honi, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian. Ordezkari horrek eta adjudikaziodunaren agindupeko langileek ez dute inolako harreman juridikorik, lanekorik ezta bestelakorik izango partzuergoarekin kontratua indarrean dagoenean ezta kontratua bukatzean ere.

GALDERAK



Lizitatzailerak galdera-txanda bakarrerako aukera izango dute eskaintzak aurkezteko aldian. Galderak idatziz egin beharko dizkiote BBUPri, Kontratazioko Zuzendariordetzari zuzenduta. Galderak onartzeko epea lizitazioa argitaratzean hasiko da, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino hamazazpi egun natural lehenago amaituko da. BBUPk idatziz erantzungo die egindako galdera guztiei, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino zazpi egun lehenago jakinaraziko die erantzuna eskaintzaile guztiei.

BESTE GOGOETA BATZUK

Eskatuko zaie erabateko independentzia juridiko eta ekonomikoaren ziurtagiria edo berariazko adierazpena, materialak edo osagaiak fabrikatzen dituzten sozietateekiko eta enpresa sustatzaile, eraikitzaile edo instalatzaileekiko. Era berean, adjudikaziodunak izanez gero, hirugarrenentzako eskaintzak egiten ez laguntzeko konpromisoa adierazi beharko dute, BBUPrekin duten kontratu-loturak irauteen duen bitartean.